



KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure enpresaren berri emateko hasiera batean bideo labur bat sortuko dugu. Bideo horretan, gure enpresaren aurkezpen txiki bat eta gure funtzionamendua laburki azalduko dugu. Bideo hau Errenteria, Lezo eta Oiartzungo gurasoei Whatsapp bidez zabaltzeko asmoa daukagu. Gainera, Facebook kontu bat irekiko dugu (@jostailuentxokoa)

Behin jende kopuru txiki batek gure enpresaren berri duela herriko plazan Mundu Osoko Jostailuen Eguna antlatuko dugu. Egun honetan, munduko leku desberdinetako jostailuak erakutsiko ditugu, hurrek jolas dezaten eta gurasoek gure enpresaren berri edukitzeko. Gainera, egun hau aurrera eramateko aisialdirako hainbat taldekin jarriko gara kontaktuan (*Lezoko eta Oiartzungo Kuadrilategi taldeak*) eta Talde hauen laguntzarekin gure jostailuekin jokoak eta hainbat ekintza antolatzeko aukera izango dugu egunean zehar.

Jostailuen liburutegiaren irekiera eta ordutegi (*asteartetik ostiraletara 16.30tatik 20.30tara eta larunbatetan 9.00tatik 13:00etara eta arratsaldean, 17.00etatik 20.00tara eta igandean eta astelehenean jai*) zehatza batekin herriko kaleetan kartelak ipiniko ditugu. Gainera, gure enpresaren lehenengo astea dohainik izango da.

Behin enpresa martxan daukagula hainbat modo edukiko ditugu gure zerbitzua eskaintzeko. Alde batetik, fisikoki gure lokalaren bitartez jostailuak alokatzeko aukera egongo da; ordutegi finko baten baitan. Beste alde batetik, internet bidez eskuratzeko aukera ematen dugu; gure enpresaren webgunearen bitartez (jostailuen.liburutegia@gmail.com). Gainera, gure webean liburutegian ditugun jostailuen katalogoa dago, horrela nahi duzun jostailua erreserbatzeko aukera ematen dugu.

Gaur egun, haurrek munduko jostailu guztiak eduki nahi dituzte. Gainera, berehala aspertu eta aldatu nahi dituzte. Horren aurrean, gure enpresak irtenbide bat eskaintzen du: jostailuak alokatzeko aukera. Familia batek urtean gutxi gorabehera 400 euro gastatzen ditu jostailuetan, gure zerbitzuak diru kopuru hori murrizteko aukera ematen du.

Jostailuen liburutegiak gehienez bazkideko 3 jostailu alokatzeko aukera eskeitzen du. Jostailu horiek alokatu eta hamabost egunertara itzuli behra dira; beste batzuk hartzeko aukera duzu edo beste hamabost egunez luzatzeko aukera.

Proiektu honek onurak ekar ditzake bai familiei bai ekosistemari. Familiek jostailutan gastatutako dirua aurrezteko aukera izan dezakete eta ekosistema zaindu egingo dugu (plastiko gutxiago erabiliz adibidez).

Gure zerbitzuari esker hainbat jostailu ezberdin edukitzeko aukera bermatzen dugu, ahalik eta kostu txikienean familientzat.

